

ALDAKETA HEZKUNTZA-ERAKUNDEAN

GAIA	Hezkuntza
ECTS/ORDUAK	150 ORDU
EGUTEGIA	2022/02/28 - 2022/04/02
TOKIA	Bilbo AS Fabrik
HIZKUNTZA	Gaztelania
MODALITATEA	Erdi-presentziala

Informazio gehiago
eta izen-ematea

AURKEZPENA

Berrikuntza edo moda? Zein da hezkuntza-aldaketaren norabidea? Nolako gizartera garamatza?

Hezkuntza-aldaketako eklosio-garaian bizi gara, “hezkuntza-berrikuntzaren udaberria” bezalako mantrak entzunez. Era askotako eskolek bat egiten dute egunero eskola birpentsatzeko fenomeno global horrekin, irakasteko eta ikasteko moduen aldaketarekin, aldaketa-prozesuekin, haien kudeaketarekin, lidergoarekin, rolekin..., ikaskuntza-komunitateen eta ikasten duten erakundeen ezaugarriak bereganatuz. Aldaketa-prozesuen erregularitasuna konplexutasuna da.

Modulua esperientzien azterketan oinarrituko dugu, eta hezkuntza-aldaketako kontakizun eraldatzaileak entzun ahal izango ditugu hainbat testuingurutan. Hori guztia, hezkuntza-erakundeen aldaketa-prozesuaren gakoak aztertzeke.

NABARMENDUAK

- ✓ Erreferentziazko bi erakundek eskainia: Mondragon Unibertsitatea eta TeamLabs
- ✓ Hezkuntza-erakundeko aldaketa-prozesuen gakoetan sakonduko duzu
- ✓ Arantza Ozaeta, Ainara Artetxe eta Eneritz Garro ikertzaileek koordinatua
- ✓ FUNDAEren bitartez hobaria jaso daiteke

KONTAKTUA

HARREMANETARAKOPERTSONA

JULENE GORROTXATEGI

600 02 27 20

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

HELBURUAK

- Aldaketaz gogoeta egitea egituratik eta lidergotik abiatuta, bai eta irakasleen kontzientziazioaz eta gelako praktika-aldaketaz ere.
- Hezkuntza-erakundeko aldaketa-prozesuen gakoetan sakontzea, esperientzien azterketatik abiatuta.
- Berrikuntzara esperimentalki hurbiltzea, ikastetxe baterako berrikuntza-prototipoa eraikiz.

NORI ZUZENDUA

- Derrigorrezko Hezkuntzako eta bestelako ikastetxeetan gertatzen diren aldaketen zuzendaritza, koordinazio eta prozesuen arduradunak.
- Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH), Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateetako irakasleak.
- Ikaskuntza ez-formaleko espazioetan koordinazioaz, zuzendaritzaz eta aldaketa prozesuez arduratzen diren pertsonak.

PROGRAMA

Ikastaroa esperientzietan eta esperimentatzean oinarritzen da. Zure bizipenak ekarriko dituzu, lan etnografiko bat egingo duzu, hainbat irakurketa egingo dituzu eta, ikasitako guztiarekin, ikastetxe baterako berrikuntza-prototipo bat eraikiko duzu. Lan hori da ikastaro honen antolaketaren ardatza, eta funtsezko lau urrats landuko dituzu:

Lan etnografikoa

Berrikuntzara hurbiltzea proposatzen dizugu. Horretarako, zure eskola-historia gogoratuko duzu, eta etnografia-lan bat egingo duzu, hezkuntza-berrikuntzari buruzko kartografia egiteko, hezkuntza aroaz gain beste ikuspegi batzuk ere kontuan hartuz.

Berrikuntzaren zuzendaritza

Zenbait input teoriko jasoko dituzu, berrikuntza zer den eta zerekin lotzen den hausnartzeko. Ikerketa txiki bat eta proposatutako irakurketen eta analisisien hausnarketa kritikoa oinarri hartuta, zure «berrikuntzaren hiztegi akademikoa» eratu eta zure argumentarioa eraikiko duzu, berrikuntza definitzeko.

Berrikuntza motak

Astero, input praktikoa «hotzak» eta «beroak» jasoko dituzu, eta haietatik abiatuta, «hezkuntza-berrikuntzako hiztegi apokrifoa» sortuko duzu.

Berrikuntza guztietan bihozkadak, gorputzaren egoerak, intuizioak... daude. Horri guztiari input «bero» deitu diogu.

Gainera, testigantza «hotzak» ere egongo dira (zer norabide hartzen duen aldaketak, metodologiaren aldaketa, teknologien sarrera, ebaluazioa...).

Hezkuntza-berrikuntzaren prototipoa

Azkenik, berrikuntzara hurbilketa esperimentala egingo duzu. Ikastetxe baterako berrikuntza-prototipo bat eraiki beharko duzu, eta, horretarako, bi hiztegiak erabili beharko dituzu.

Lana batzuetan taldean egingo duzu eta beste batzuetan bakarka. Batzuetan talde orokorrean lan egingo dugu, batera; beste batzuetan, talde txikiagotan; eta beste batzuetan, banaka lan egingo dugu.

MATRIKULA

Izena emateko, bidali [eskaera-orri](mailto:eskaera-orri@mondragon.edu) hau idazkaritza akademikora.

- idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

Izena emateko epea: 2022ko otsailak 24.

Fundaeren bitartez, % 100eko hobaria jaso daiteke.

KOORDINAZIOA

- Agurtzane Martinez: amartinez@mondragon.edu
- Beatriz Garcia: beatriz@teamlabs.es

ERAKUNDEA

[TeamLabs](#) ikaskuntza-laborategiarekin elkarlanean diseinatu dugu ikastaro hau.

FINANTZIAZIO ITURRIAK

Ikastaro honetan, FUNDAEren bitartez, % 100eko hobaria jaso daiteke.

Behar duzun gauza bakarra zure enpresari eskaera egitea da (erakundeek dute kredituaren hobaria jasotzeko aukera). Hortik aurrera, gure kontu egingo dugu kredituari dagokion kudeaketa, aholkularitza eta egiaztapena, aholkulari espezializatuen bitartez.



JASOKO DEN TITULAZIOA

Mondragon Unibertsitateko **Aldaketa Hezkuntza-Erakunde**an ikastaroko parte-hartze ziurtagiria (6 ECTS)

PREZIOA

Alumni elkarteko kideek %10eko deskontua izango dute ikastaro honetan.

INFORMAZIO GEHIAGO

Julene Gorrotxategi

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

600 02 27 20

